

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 40/2017 Foru dekretua, abuztuaren 3koa, informazio publikoa emateko prezio publikoak onartzen dituenak

Otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak, gardentasunaren, herritarren parte hartzearen eta gobernu onarenak, informazioa jasotzeko eskubide subjektiboa ekarri du foru egoitzara.

Testuinguru horretan, aipatutako arauak, informazioa jasotzeko eskubide hori baliatzeko berariazko prozedura taxutzean, bere 37. artikuluko 4. idatz zatian, informazioa doakoa izango dela xedatzen du, baina gehitzen du diru kopuru bat ordainarazi ahal izango dela kopiak emateagatik eta dokumentuak jatorrizko formatutik beste batera aldatzeagatik; betiere, diru kopuru horrek ez du benetako kostua gainditu behar.

Horregatik, kontuan hartuta kopiak doakoak izatearen ondorioz gerta litekeela euskarriak neurririk gabe erreproduzitzea eta are zenbait dokumenturen osotasuna arriskuan jartzea, horrelako ondorioak saihestearren, informazio publikoa erreproduzitzeko eta bidaltzeko tarifak ezarri behar dira zenbait kasutan.

64/1989 Foru Arauak, tasa eta prezio publikoei buruzkoak, zeina azaroaren 23ko 33/1998 Foru Arauak zati batean aldatu baitzuen, Arabako Lurralde Historikoko foru sektore publikoa osatzen duten erakundeek tasa eta prezio publikoen araubide juridikoa zehazten du bere artikuluetan.

Hori dela bide, aipatutako arauak 24., 25., 26. eta 27. artikuluetan xedatzen duenarekin bat etorriz, proposatzen da onar daitezela Arabako Foru Aldundiak Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoko erakundeetan eskuragarri dagoen informazioa biltzen duten dokumentuak erreproduzitu eta bidaltzeko zerbitzuaren truke ordainaraziko dituen prezio publikoak.

Bestalde, otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak, Arabako lurralde historikoko gardentasunaren, herritarren parte hartzearen eta gobernu onarenak, azken xedapenetatik laugarrenean ahalmena ematen dio Foru Gobernu Kontseiluari foru arau horretan xedatutakoa garatu eta betearazteko behar den zernahi xedapen emateko.

Dekretu hau izapidetzeko, bete egin dira araupetze onaren printzipioak. Foru dekretu horrek hauek onartzen ditu: izaera orokorreko xedapenak egiteko prozedura, araupetze eta genero eraginaren txostenak egiteko gidak eta araugintza teknikarako jarraibideak. Beraz, aurrekari horietan aski arrazoitu da prezio publikoen araudia aldatzeko beharra, batez ere araudi aldaketa neurrikoa izanda, zeren eta helburua lortzeko gutxieneko ezinbestekoa baino ez baita aldatzen. Gutxieneko hori halako jakin batzuetan informazio emateagatik ordaindu beharreko prezio publikoa zehaztea da.

Segurtasun juridikoaren printzipioa ere bermatzen da, zeren eta aski arrazoitzen baita nola ordenamendu juridikoan sartzeari hala hura ematen duen organoaren gaikuntza, foru arau baten ezarritakoa garatzen da eta.

Gardentasunaren printzipioa bermatzea dela eta, otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak, Arabako lurralde historikoko gardentasunaren, herritarren parte hartzearen eta gobernu onarenak, 24. artikuluan xedatutakoa bete da, arauen testua entzunaldi izapidetzepean eta jendaurrean jarri baitzen.

Eraginkortasun printzipioari gagozkiola, planteatutako arauketak, bere izaera dela eta, ez dakarkie administratuei ez administrazio karga osagarririk ez premiagabekorik, salbu eta

zenbait kasutan informazio publikoa eskuratu ahal izateagatik eska daitezkeen prezio publikoak ordaintzeari dagozkionak. Ez dakar, halaber, baliabide publikoen kontsumo handiagorik.

Arabidezko Garapenerako Zerbitzuak emandako txostena ikusirik, diputatu nagusiaren proposamenez, eta Diputatuen Kontseiluak, gaur egindako bilkuran, gaia eztabaidatu ondoren,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa Informazio publikoa emateko prezio publikoei buruzko araudia onartzea, otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak, gardentasunaren, herritarren parte hartzearen eta gobernu onarenak, aurreikusitako eran, honako artikulua hauetan oinarrituta:

1. artikulua. Xedea

Foru dekretu honen xedea da prezio publikoak ezartzea Arabako Foru Aldundiak haiek ordainaraz ditzan Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoko erakunde guztien dokumentu funtsetan eskuragarri dagoen informazioa biltzen duten dokumentuak edozein euskarri materialetan erreproduzitu eta bidaltzeagatik, otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak, gardentasunaren, herritarren parte hartzearen eta gobernu onarenak, aurreikusten duen eran.

2. artikulua. Ordaindu behar duten pertsonak

Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoko erakundeen aurrean informazio publikorako eskubidea baliatzen duten pertsonak ordaindu beharko dituzte prezio publikoak.

3. artikulua. Sortzapena

Informazioa emateko eskatzen den unean sortuko dira prezio publikoak. Eskaera ez da izapidetuko ordaindu beharrekoa ordainduta dagoela egiaztatu arte.

4. artikulua. Salbuespenak

4.1. Salbuespen subjektiboak.

Ez da prezio publikorik ordainduko Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoko erakunde eta organoek informazioa elkarri ematen dietenean edo beste administrazio publiko batzuetako erakunde eta organoei informazioa ematen dietenean, Administrazio korporatiboa osatzen duten erakundeei izan ezik.

4.2. Salbuespen objektiboak.

Kasu hauetan ez da prezio publikorik ordainduko:

- a) DIN A4 formatuan 20 orrialde baino gutxiagoko kopiak ematen direnean.
- b) Informazioa bide telematikotik bidaltzen denean.

5. artikulua. Zenbatekoa

1. Zenbateko finko batzuen bidez kalkulatu da prezio publikoa, eman beharreko informazioaren euskarri gisa erabiltzen diren materialen kostuaren arabera eta informazio hori bidaltzeko kostuaren arabera.

2. Aurreko idatz zatian aipatutako tarifa edo zenbatekoak honako hauek dira:

2.1. Informazioaren euskarri gisa erabilitako materialen arabera:

A4 fotokopiak, zuri-beltzean, unitateko: 0,04 €

CDak, unitateko: 0,42 €

DVDak, unitateko: 0,47 €

Geruza bikoitzeko DVDak, unitateko: 1,26 €

2.2. Emandako informazioa bidaltzearen kostuaren arabera, pisu tartea kontuan hartuta:

20 gramora arte: 4,35€

50 gramora arte: 4,43 €

100 gramora arte: 4,68 €

500 gramora arte: 5,44 €

Kilogramo batera arte: 7,13 €

Bi kilogramora arte: 7,48 €

3. Aurreko kuantifikazio elementu horiek aplikatzearen ondoriozko zenbatekoak diputatu nagusiaren foru dekretuen bidez ezarri eta aldatu ahal izango dira. Foru dekretu horiekin batera memoria ekonomiko-finantzarioa egin beharko da, azaroaren 20ko 64/1989 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko tasa eta prezio publikoei buruzkoak, 26.2 artikuluan aurreikusten duen moduan.

6. artikulua. Kudeaketa eta likidazioa

1. Arabako Foru Aldundiak kudeatuko du foru dekretu honen xede den prezio publikoa, zerbitzu egokien bitartez.

2. Informazio eskaera jaso ondoren, prezio publikoa kalkulatzeko elementuak (zenbat dokumentu erreproduzitu behar diren, zer formatutan bidali behar den informazioa, eta abar) zehaztu eta gero, informazio eskaera kudeatzen duen organoak, hamabost eguneko epean gehienez, ordainketa gutuna jakinaraziko du, eta diru bilketako erakunde laguntzaileen bitartez ordaindu beharko da.

3. Prezio publikoa ordaindu ondoren, ordainketa egiaztatu eta gero, eskatutako informazioa emango da, otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak, gardentasunaren, herritarren parte hartzearen eta gobernu onarenak, ezarritako epeen barruan.

4. Bidezkoa izango da prezio publikoa itzultzea, ordaindu behar izan duen pertsonari ez bazaio ematen informazio publikorik, berari ezin egotzi zaizkion arrazoiengatik.

Xedapen iragankorra

Foru dekretu honetan xedatutakoa ez zaie aplikagarri izango foru dekretu hau indarrean sartu aurretik aurkeztu diren informazio publikoa eskuratzeko eskaerei.

Azken xedapena

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko abuztuaren 3a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Diputatu Nagusiaren Kabinetearen zuzendaria

NEKANE ZEBERIO GANZARAIN